

2012KO MAIATZAREN 7AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Zazpia.

HILABETEA: Maiatza.

URTEA: Bi mila eta hamabia.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko bostak laurden gutxiagotan

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

Unai Baztarrika Otegi

ETORRI GABEA: M^a Mar Celaya González

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2012ko apirilaren 23ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- OBRAK KONTRATATZEA. Adjudikazio proposamena.

a.- Hainbat espaloi zaharberritzeko obrak prozedura irekiaren bitartez kontratatzeko baldintza plegua onartzea eta deialdi publikoa egitea.

2012ko apirilaren 23an Hirigintza batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Hainbat espaloi zaharberritzeko obrak egiteko proiektua onartzea.

Bigarren. Obra horiek, prozedura irekiaren bitartez eta publizitatearekin kontratatzeko deialdi publikoa egitea eta horretarako baldintza plegua onartzea.

Lizitazio prezioa, 192.781,94 €koa da (BEZik gabe), egikaritze epea, hamabi astekoa izango da eta esleipen irizpidea prezio baxuarena da.

b.- Alkartasuna Lizeoan eta Murumendi ikastetxeetan berritze obrak, prozedura irekiaren bitartez kontratatzeko baldintza plegua eta deialdi publikoa egitea.

2012ko maiatzaren 7an Hirigintza batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“**Lehenik.** Alkartasuna Lizeoan eta Murumendi ikastetxeetan berritze obrak egiteko proiektua onartzea.

Bigarren. Obra horiek, prozedura irekiaren bitartez eta publizitatearekin kontratatzeko deialdi publikoa egitea eta horretarako baldintza plegua onartzea.

Lizitazio prezioa, 236.542,96 €koa da (BEZik gabe), egikaritze epea, sei astekoa izango da eta esleipen irizpidea prezio baxuarena da.”

3.- BIZIGUNE PROGRAMA. Kontratua luzatzea.

Aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“**Lehenik.** Bizigune programan sartu ahal izateko, “ABOGADOS Y TECNICOS ASOCIADOS, S.A.rekin” (AYTASA) Beasaingo udalerrian hutsik dauden etxebizitzak atzitzeko zerbitzua emateko sinatutako hitzarmena, 2012ko urriaren 1earte luzatzea, 2012ko martxoaren 12ko atzeraeraginekin. Zerbitzu horren bidez lan hauek prestatzen dira:

- Beasaingo udalerrian hutsik dauden etxebizitzak jabeen eta interesatuei Bizigune programak eta etxebizitzak izan behar dituzten ezaugarrien berri ematea.
- Jabeen aholkatzea etxebizitzak VISESAri lagatzeko baldintzei buruz eta ordainetan jasoko dutenari buruz.
- Interesatuek VISESArekin harremanetan jartzeko erraztasunak ematea.
- Bizigune programari buruzko informazioa ematea.

Bigarren. Zerbitzua, 2009ko martxoaren 12an sinatutako kontratuan ezarritako baldintza berdinetan emango da.

Hirugarren. Luzapena bakarrik 2012ko urriaren 1erarte egiten da, data horretan amaitzen delako Udalak AYTASArekin sinatuta duen kontratua, J. M. Arana kaleko 1. Areako 1 Unitate Egikaritzeko Birgaitze Plan Berezia gauzatzeko kudeaketa lanak burutzeko.”

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko bostetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.